

Heldu da jada gazte danbada!

4 egun eta 3 gau. Gozatzeko, amesteko, sentitzeko, barre eta negar egiteko, emozionatzeko, ligatzeko,

Hilabete luzeak izan dira azken hauek. Eztabaida luze eta sakonak burutu ditugu denok. Zaila izan da bai, neketsua baina oso emankorra. Eta heldu zaigu eraikiz gozatzeko momentua. Imaginatutako guztia, paperean idatzitakoa, praktikan jartzeko momentua. Gure buruak heziko ditugu, teorian zein praktikan; eztabaidatuko dugu, dantzatu eta elkar ezagutuko gara. Orduña gure eredu berri horren lehio txiki bat izango da. Astelehenetik aurrera haize berriak sartzen utziko dituzten lehioak Euskal Herrian parez pare irekitzeko bultzada.

Eta guzti hau egiteko antolakuntza ezinbestekoa da. Harro esan dezakegu, euskal herriko gazteok gure buru eta eskuekin, gure sormen eta ilusioarekin eraiki dugula danbada. 4 egun luze dauzkagu aurretik, baina gu guztion lanak egingo du 4 egun hauek ahaztezinak bihurtzea. Txanda luzeak izango ditugu, bustita eta lokatzez lepo egongo gara, gau hotzak pasako ditugu... baina ziur egon esfortzu guztiek, bere fruituak emango dituztela.

Beraz, eman diezaiogu hasiera ekimen erraldoi honi. Milaka gazte batuko gara egunotan hemen, lurralde, izaera eta adin ezberdinetako milaka gazte. Aukera honi heldu eta elkarrengandik

ikasi dezagun, lan eginez eta gozatuz. 4 egunek askorako ematen dute, 4 egun hauetan biziko duguna, sentituko duguna betirako gure buru eta bihotzetan eramango baitugu!

Etorkizuneko Euskal Herri feminista eta sozialista gaur eta hemen hasten delako. Animo gazteak, disfrutau!merezi dugu eta!

Gora EH askatua!

Gora EH sozialista eta feminista!

Gora ERNAI!